

# B

BARREN

TOKIKOM



# Atletismoa maila gorenean





E-posta berriak ditugu:

BARREN astekaria: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

BARREN webgunea: [barren.eus@elgoibarkoizarra.eus](http://barren.eus@elgoibarkoizarra.eus)

Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topagunea: [elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus](mailto:elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus)



I. URTEURRENA

## LUISA EGUREN LARREATEGI



*Nahiz eta bihotza geldirik izan  
eta begiak itxirik,  
guretzako orain eta beti  
iraungo duzu bizirik.*



2014ko urtarrilaren 25ean hil zen, 89 urte zituela. I. urteurreneko meza zapatuan, urtarrilaren 24an, izango da arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome parrokian. Joango zaretenoi eskerrak alde z aurretik.

I. URTEURRENA

## LUIS ARRIETA BARRENETXEA



*Gure ondotik  
joan zara,  
baina betiko izango zaitugu  
gure bihotzean.*



Zure sendiak

2014ko urtarrilaren 21ean hil zen, 84 urte zituela. I. urteurreneko meza zapatuan, urtarrilaren 24an, izango da arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome parrokian. Joango zaretenoi eskerrak alde z aurretik.

Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR  
☎ 943 744 112

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)  
Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.com)  
Webgunea: [www.barren.eus](http://www.barren.eus)

**BARREN**ek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enantzuzunetik.

COORDINATZAILEAK Ainhoa Andonegi  
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea,  
Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA  
Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio  
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz ATARI DIGITALEKO  
ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika  
ADMINISTRARIAK Amaia Arrizabalaga, Nerea  
Osoro KOLABORATZAILEAK Noemi Otegi,  
Ainara Sedano, Jairo Berbel, Joanes  
Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa  
Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga,  
Amaia Larrañaga, Danele Sarrigarte, Mikel  
Olaizola, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane  
Mendikute, Janire Elordi INPRIMATEGIA Gertu  
Koop. E. TIRADA 4.860 ale LEGE GORDAILUA  
SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

## ARGITARATZAILEA:



## LAGUNTZAILEAK:



elgoibar  
biZi-biZiXal



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzuzunetik. Eskutitza ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com).

### Buruko gaitza dutenak

Kasta gutxiagotu bateko izakia,  
gizapetiko izakia,  
okela zati bat bailiran hartutakoak,  
ganadu masifikatuak bezala hartutakoak.  
Edozein pertsonak baino eskubide gutxiagorekin,  
munduko edozein lekutan,  
inolako errespeturik ez gure sentimenduekiko.

Ezin duzula lorik egin? Pastilla  
Urduri zaudela? Pastilla  
Iskanbila sortzen ari zarela? Pastilla  
Triste zaudela? Pastilla  
Neska bati musu eman nahi diozula? Debekatuta  
Musika entzun nahi duzula? Debekatuta  
Dentistarenera joan nahi duzula? Debekatuta  
Gauetz irakurri nahi duzula? Debekatuta

‘Hilabete egingo duzu ingresatuta’,  
esaten badizute,  
hiru hilabete egingo dituzu han barruan.  
‘Bihar emango dizute alta’, esaten badizute,  
astebete pasatuko da alta ematen dizutenerako  
‘Bihar ikusiko zaitu medikuak’, esaten badizute,  
hiru egunetan ez duzu ikusiko.  
“Lasai, ez da ezer gertatzen”, esaten badizute,  
larritu zaitez, orduan hasten baita enbata.

Haien pentsatzeko modua:  
“Buruko gaixotasuna duena traba da”.  
Haien egiteko modua:  
“Buruko gaixotasuna duena edozein modutan  
trata daiteke”.  
Ez zaitez kexatu. kexatzen bazara, zigortu egingo  
zaituzte-eta (umeak eskolan bezala).  
Ez iskanbilarik sortu. Egiten baduzu, ohera lotu  
eta lasaigarri bat injektatuko dizute-eta.

Iraingarria da,  
bukatu behar den zerbait,  
buruko gaitza duenak jasotzen duen tratua  
besterik gabe gaixo egoteagatik.  
Norbait hil izan bagenu...  
neskatxoren bat bortxatu izan bagenu...  
orduan justifikatua egongo litzateke.

Borroka dezagun buruko gaitzak dituztenen alde,  
entzun gaitzatela kalean,  
normalizatu daitezela kontuak,

dozenaka, ehunka, milaka, miloika baikara!  
jasotzen dugun tratua salatu nahi dut  
osasungintza publikoan bizi dugunagatik.  
10 urte daramatzat gaixo, eta hogei psikiatra eza-  
gutu ditut, eta joan zen astean, nire bizitzan aurre-  
neko aldiz, sendagile batek nire familiaz eta haie-  
kin nuen harremanaz galdetu zidan.

A.J. C

### Eskerrik asko

Ikastolako Guraso Kontseiluak eskerrak eman  
nahi dizkie Gabon Zahar eguneko txosnan parte  
hartu zutenen: “Txalo bero bat Gabon Zahar egu-  
nean ikastolaren txosna antolatzen eta bertan la-  
nean aritu zineten guraso guztioi, baita Armueta,  
Ziarda eta Benito harategiei: ez zenuten lan maka-  
la egin! Bestalde, mila esker bertara joan zineten  
herritar eta kanpotarrei ere. Giro polita sortu zenu-  
ten denon artean”.

Ikastolako Guraso Kontseilua C

### Lagunak Pilota Elkarteko oharra

Lerro hauen bidez dei bat egin nahi diegu El-  
goibarko pilotazale guztiei.

Urte asko dira eskola hau zuzentzeko eta pi-  
lotari gaztetxoei pilotan jokatzeko erakusteko ardu-  
ra hartu genuela. Orain gehienok zahartu egin ga-  
ra eta eginahalak egin arren, motz gelditzen gara  
lan honetan jarraitzeko, urteek ez dute barkatzen-  
eta.

Beste leku askotan bezala, bada sasoia jende  
gazteak txanda hartu eta sasoiako jendearrekin gu-  
re eskola eraberritzeko. Pilotan ikasi nahi duen  
ume talde eder bat badaukagu, eta eurei lagun-  
tzea izango litzateke gure pozik handiena, bihar  
edo etzi geure-geurea den kirol honekin goza de-  
zaten, baina horretarako, lagundu eta euren gai-  
nean egon beharra dago.

Eskola honen ardura hartu eta laguntzeko  
prest zaudetenok jar zaitezke gurekin harrema-  
netan ikastolako frontoian, asteartetik ostegunera,  
18:00etatik 19:00etara, edo gutako edozeinekin  
berba eginez.

Bihotzez eskertuko dizuegu.

Lagunak Pilota Eskolako zuzendaritza C

## Saharako errefuxiatuentzako janaria biltzeko kanpaina martxan da

Eroski eta BM supermerkatuetan jasoko dituzte elikagaiak hil amaierara arte

**M**endebaldeko Saharako errefuxiatuei laguntzeko janari-bilketa hasi du Euskal Herriko Otsailak 27 elkarteak. *Piztu itxaropena* izena jarri diote kanpainari, eta Tindoufeko (Aljeria) errefuxiatuek elikagaietan dituzten premiak asetzea da helburua. Arroza, pasta, lekaleak, azukrea, hegaluzea zein sardinak oliotan eta konpresak behar dituzte, bereziki.

Elgoibarren, Eroski (B. Ezenarro eta Santa Ana) eta BM supermerkatuetan jasoko dituzte eskatutako produktuak, hil bukaerara arte. Kanpainan parte hartzeko interesa dutenek bi modu dituzte Saharako errefuxiatuei laguntzeko: janari bilketan parte hartuz, edo diru-laguntzak emanaz. Diruz lagundu nahi dutenentzat honako kontu korrontea zabaldu dute Euskadiko kutxan: 3035 0080 94 0800054177. Informazio gehiagorako: 619 029 648 edo [koordinadora27febrero@gmail.com](mailto:koordinadora27febrero@gmail.com)



### Nerea Alustiza izango da PSE-EEren alkategaia



Nerea Alustiza eibartarra izango da Elgoibarko PSE-EEren alkategaia datozen Udal Hauteskundeetan. Eguaztenean egin zuten aurkezpen ekitaldia PSE-EEren egoitzan, eta Denis Itxaso Gipuzkoako Foru Aldundirako hautagaia ere izan zen ekitaldian. Nerea Alustizak 1999an hasi zuen bere ibilbidea PSE-EEen, eta 2011n sartu zen zinegotzi Elgoibarko udaletxean, Ovidio Campelloren heriotzaren ostean. Fernando Suarezekin batera bera izan da legealdi honetan sozialisten ordezkaria Udalean, eta Ongizate Sailaren ardura izan du.

### Ikasteko zailtasunei buruzko hitzaldia, Mendaron

Mendaroko Arno Guraso Elkarteak ikasteko zailtasunei buruzko hitzaldia antolatu du, urtarrilaren 28rako. Agurtzane Martinez de la Maza izango da hizlaria, eta besteak beste, ikasteko zailtasunak dituzten haurrei nola lagundu azalduko du. Guraso eta irakasleei zuzendutako hitzaldia da. 18:00etan izango da, udaletxeko pleno aretoan, gaztelaniaz.

### EHBilduren bilera irekia martitzenean, Kultur Etxean

“Gipuzkoa eta Elgoibar ezberdin bat eraikitzeko lanean ari da EHBildu”, eta zeregin horretan jarraitzeko herri asanblada irekia deitu dute martitzenerako, azken lau urteotako lanaren balorazioa egin eta aurrera begirakoak lantzeko. 2015-2019 legealdira begira jarri dira, eta besteak beste, alkategai izango direnak proposatzeko azken bilera izango da honakoa. Prozesu irekia jarri dute martxan, eta bileretan parte hartzen duten herritarren artean aukeratu dituzte alderdiaren ordezkariak. Bilera Kultur Etxeko hitzaldi gelan izango da, 19:00etatik aurrera.



# Makina-erremintaren mendeurrena herriko erakusleihotan islatu izana eskertu du Udalak

Bost merkatarri saritu dituzte mendeurrenarekin izandako inplikazioagatik

**M**endeurrenaren harira, erakusleioak makina-erremintarekin zerikusia zuten motiboekin apaintzera animatu zituen Udalak merkatarri eta tabernariak, eta esker ona adierazteko, bost merkatariri ehuna euro eman dizkiete. Udal pleno aretoan egindako ekitaldian banatu zizkien Alfredo Etxeberria alkateak oroigarriak eta dirua. Errosario kalean dagoen Moma jantzi-denda, San Frantzisko kaleko Kala loradenda, Kalegoen plazan dagoen Ipintza margoak eta San Bartolome kaleko Ferpi Modak eta Muruamendiaraz gozotegia dira sarituak.

## Merkatarrien inplikazioa

Erakusleioak osatzean makina-erremintaren sektorearen aniztasuna erakusteko ahalegina, dekorazioan egindako esfortzua eta orijinaltasuna izan ditu kontuan Udalak. Aipatutakoez gain, parte hartu duten guztiei eskerrak eman zizkien alkateak, eta mendeurrena "guztiona" de-



la nabarmendu zuen sari banaketa ekitaldian. Izan ere, Elgoibarko historian eta gaur egungo bizitzan ere zutabe nagusia da makina-erremintaren sektorea. Halaxe adierazi zuen Etxeberriak: "Egun bizi dugun krisi ekonomikoak eragina du indus-

tria mota honetan, baina enpresek herriaren aldeko apustu garbia egin dute. Horregatik ezinbestekoak dira horrelako ekintzak industria mota honi babes soziala erakusteko eta sektorean Elgoibar erreferente izaten jarraitzeko".

## Ingeniaritza dualeko hamaseigarren promozioek diplomak jaso dituzte



IMHko Ingeniaritza Dualeko Unibertsitate-eskolako hamaseigarren promozioko ikasleek, Frantziako CESI erakundeari atxikitako azken promozioko ikasleek alegia, diplomak jaso dituzte. Hemeretzi urte dira IMHk eta Frantziako CESI eskolak hitzarmena sinatu eta Elgoibarren ingeniaritza dualeko eskolak ematen hasi zirenetik eta hiru bat urte ikasketa hauek EHUren eskaintza barruan sartu zituztela. Ekitaldian, Itziar Alkorta Eusko Jaurlaritzako Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordeak, Jon Peli Uriguen Gipuzkoako Berrikuntzarako diputatuak, eta CESI taldeko eta EHUko ordezkariak parte hartu zuten, Alfredo Etxeberria alkatearekin batera.

# ONENAK MINTXETAN



*Eguaztenean aurkeztu zuten krosa udaletxeko pleno aretoan.*

**Elgoibarrek eta atletismoak duten urteko zitarik garrantzitsuena iritsi da: Mugertza Nazioarteko Krosa. Dena prest dago domekarako, eta urtero bezala mundu mailako korrikalaririk onenen erakustaldia izango da Mintxetako zirkuitoan. Mintxeta atletismo taldeak gogotik egin du lan aurten ere, eta onenetan onenak izango dira beste behin ere Elgoibarren. 10:00etan hasiko dira lasterketak, eta guztira 800 bat atletak hartuko dute parte.**

**Ainhoa Andonegi**

**N**azioarteko Atletismo Federazioak (IAAF) kros lasterketen egutegian sartu du aurten estreinakoz Elgoibarko Juan Mugertza Nazioarteko Krosa, eta antolatzaileek adierazitakoaren arabera, kros lasterketen “champions”ean dago orain Mugertza krosa, hamabi krosek osatzen dute-eta IAAF kategoria.

Urte guztian egiten du lan Mintxeta Atletismo Taldeak Mugertza krosa antolatzen, eta lan horren emaitzaren erakusle da aurtengo parte-hartzaileen zerrenda: senior lasterketei dagokionez, atleta afrikar onenetarikoak kontratatu ditu Mintxetak. Emakumezkoetan Emily Chebet (Kenya, 1986) nabarmendu behar da, birritan

munduko txapelduna izandakoa, hain zuzen ere. Aukari gogorak izango ditu, ordea, Chebetek, eta Mercy Cheronon herrikidea izango du horietako bat. Mimi Belete ere proba irabazteko faboritoetako bat izango da, eta Sara Moreira portugaldarra ere kontuan hartu beharreko korrikalaria da.

Gizonezkoetan Paul Tanui kenyarraren itzulera nabarmendu dute antolatzaileek. Munduko kros txapeldunorde izateaz gainera, Mugertza krosa irabazi zuen 2012an. Helmuga-marran bertan hartu zion aurrea Geoffrey Kipsang herrikideari, eta Mintxetako harmailetan zegoen jendea aulkietatik altzarazi zuen, amaiera estu eta emozioz beterikoa eskainiz. Mintxeta taldekoek


esan dutenez sasoi betean dago Tanui, baina Teklemarian Medhin Eritreako lasterkaria ere denboraldi bikaina egiten ari da eta ez dizkio gauzak erraz jarriko. Biek ere argi ibili beharko dute Jairus Birech gaztearekin. Zigor Diezek esan du aspalditik zutela begiz jota atleta hau: “Sekulako erakustaldiak eman ditu udan, eta argi geneukan Elgoibarrera ekarri nahi genuela. Ikuskizun hutsa da”.

Afrikarrez gain, Euskal Herriko eta Europako korrikalariak ere izango dira Mintxetan, afrikarrei lana ematen. Guztira 800 bat atleta arituko dira lehian, hamar lasterketatan banatuta. 10:00etan hasiko da krosa, eta seniorren lasterketak 12:30ean hasiko dira.






## DOMEKAN KONTUAN HARTZEKO KORRIKALARIAK




**PAUL TANUI**  
(Kenya, 1990)

- Munduko Kross txapeldu-  
nordea 2011n.
- 10.000 metroko munduko  
lasterketan brontzezko domi-  
na, Moskun 2013an.
- Mugertza krosekoko txapeldu-  
na, 2012an.
- 10.000 metroko munduko  
txapelketan bigarren sailkatua,  
2014an.



**TEKLEMARIAM MEDHIN**  
(Eritrea, 1989)

- Munduko kros txapelketan  
brontzezko domina Polonian,  
2013an.
- Munduko kross txapelketa-  
ko txapelduordea 2010ean.
- Lasarteko eta Italica krosek-  
o irabazlea aurtan.



**JAIRUS BIRECH**  
(Kenya, 1992)

- 3.000 metroko traba laster-  
ketan munduko txapeldu-  
na.
- Iazko Diamond League las-  
terketako irabazlea.
- 3.000 metroko traba laster-  
ketan munduko rankinean 10.  
postuan dago.




**POLAT KEMBOI ARIKAN**  
(Turkia, 1990)

- Samukov (Bulgaria) krosek  
Europako txapeldu-  
na 2014an.
- 10.000 metroko proban lau-  
garren, Zurich-en 2014an.
- Londreseko Olinpiar  
Jokoetan bederatzigarren  
10.000 metroko proban.



**EMILY CHEBET**  
(Kenya, 1986)

- Munduko kros txapeldu-  
na 2010ean eta 2013an.
- Munduko 10.000 metroko  
txapelketan laugarrena,  
Moskun, 2013an.
- Munduko rankinean zortzi-  
garrena da maratoi erdian.




**MERCY CHERONO**  
(Kenya, 1991)

- 5.000 metroko proban  
munduko txapeldu-  
ordea Moskun, 2013an.
- 5.000 metroko munduko  
sailkapenean 7., 2014an.
- Sorian eta Atapuercan tx-  
apeldu-  
na aurtengo denboral-  
dian.



**MIMI BELETE**  
(Bahrain, 1988)

- Munduko 1.500 metrotan  
bederatzigarrena da sailkapen  
nagusian.
- Venta de Baños krosekoko  
txapeldu-  
na aurtengo denbor-  
aldian.
- Daeguko munduko txapel-  
ketan zazpigarrena 1.500  
metroko proban.



**SARA MOREIRA**  
(Portugal, 1985)

- Europako txapelketan bos-  
garren, 5.000 eta 10.000  
metroan, Zurich-en 2014an.
- Elgoibarko Mugertza krosek-  
o txapeldu-  
na 2011n.
- New York-eko maratoi-  
an hirugarren, 2014an.

# Ivan Fernandez

Korrikalaria

**Iaz lehenengo europarra izan zen Ivan Fernandez Mugertza Kroseko sailkapen nagusian, eta aurten ere helburu berberarekin etorriko da Elgoibarrera. 26 urte ditu Fernandezek, eta 9 urterekin hasi zen atletismoan.**

## “Mugertza krosa da niretzat urteko zitarik garrantzitsuenetakoa”

### Zer da zuretzat Mugertza Krosean parte hartzea?

Urte osoan Mugertza krosa iristeko zain egoten naiz, eta ez dizut esaten ondo geratzeko; benetan ari naiz. Elkarrizketa askotan esan izan dut Elgoibarko Mugertza krosa berezia dela, eta niretzako urteko zitarik garrantzitsuenetakoa dela, hainbat arrazoiengatik: batetik, krosa egiten den lekuagatik. Naturarekin harremanetan dago kros-gunea, mendiz inguratuta, eta oso toki polita da. Bestetik, elgoibartarrek atletismoa bizitzeko duten modua oso berezia delako, eta horrek ere berezi egiten du krosa. Ikusle bakoitzak bere sarrera ordaintzen du munduko korrikalaririk onenak ikusteko, eta harmailetatik berotasuna ematen dute.

### Noiztik hartzen duzu parte Elgoibarko krosean?

Umetatik etorri izan naiz Elgoibarko krosera, kadetea nintzenetik, eta orain kategoria absolutuan hartzen dut parte. Oro har, gipuzkoarrek duten kirol-kultura atsegin dut, eta bereziki, elgoibartarrek dutena. Atletia askok esaten dute Gipuzkoako probetan parte hartzea berezia dela, gipuzkoarrek kirola bizitzeko duten modua bera ere berezia delako.

### Nola sentitzen zara Afrikako atleten artean lehiatzen?

Beti izaten dira eurak faborito nagusiak. Afrikako atleta gehienak bi mila metroko alturatik gora jaino eta bizi izaten dira, eta horrek fisikoki lagundu egiten die. Niretzako ohore bat izaten da eurekin lehiatzea. Ni etxean sentitzen naiz Elgoibarren, euskal herritarra naiz eta eroso sentitzen naiz hemen. Atletia afrikarrei aurpegira begiratu eta lasterketa ona egiten saiatzea sekulakoa da. Ez dut esango lasterketa irabaztea bezalakoa denik, baina satisfazio handia ematen du. **Iaz oso lasterketa ona egin zenuen. Aurten zein izango da zure asmoa?**

Bai, iazko lasterketan lana eman nien afrikarrei, eta aurten ere gauza bera egiten saiatuko naiz. Tarteka eraso ere egin nien, eta azken



itzulira arte jardun nuen eurekin lehian. Badakit eurak martxa bat gehiago daukatela eta ezin izango diedala irabazi, baina sailkapen nagusian lehenengo atleta europarra izan nintzen eta hori handia da niretzat. Aurten ere helburu berberarekin nator. Lan egin, lehiatu eta sailkapeneko lehenengo atleta europarra izatea da nire asmoa. Egia da iaz egoera fisiko hobean nengoela aurten baino, baina dena emango dut aurten ere.

**Adituek diote Martin Fiz berria zarela. Bera ere Gasteizkoa da zu bezala eta askotan etorri izan zen Mugertza Krosera. Aholkurik eman al dizu Elgoibarren lehiatzeko?**

Esan zidan berari ere izugarri gustatzen zitzaiola Mugertza Krosean parte hartzea, zirkuitoa gustatzen zitzaiola, “hanka apurtzailea” delako, eta belarra, pista eta lurra uztartzen dituelako. Berak ere euskal herritarren eta gipuzkoarren kirol-kultura goraiatu izan du.

### Atletismoaren zein modalitate gustatzen zaizu gehien?

Krosa gustatzen zait gehien, eta azkenaldian asfaltoan ere gustura sentitzen naiz. Gutxien pista gustatzen zait, aspergarriena dela iruditzen zait.

### Noiz eta nola hasi zinen atletismoan?

Umetan hasi nintzen, 9 urterekin. Orain 26 dauzkat, beraz, bizi osoan jardun dut korrika. Lehenengo futbolekin jokatu hasi nintzen, baina entrenatzaileak konturatu ziren futbol zelaian korrika asko egiten nuela eta oso ondo moldatzen nintzela korrika. Lasterketa batean parte hartu nuen, eta atletismo talde batean eman nuen izena. 14 urtera arte futbola eta atletismoa uztartu nituen, baina gero futbola utzi eta atletismoan jarraitu nuen.

**‘Giro onaren krosa’ izenez izendatu zuten Mugertza Krosa, korrikalariari ematen zaien trataeragatik. Nola hartzen zaituztete Elgoibarren?**

Oso ondo. Egia esanda, beste inon ez dute egiten Elgoibarren egi-





ten dutena. Goi mailako futbolariak bagina bezala hartzen gaituzte, eta horrek asko esan nahi du antolatzaileei buruz. Tratu berezia eta beroa eskaintzen digute. Niretzako plazer bat dat Elgoibarko Mugertza Krosean parte hartzea, eta esan dezaket nire inguruko atleta guztiak nahi izaten dutela Elgoibarren parte hartu. Elgoibartarrak harro sentitzeko moduko ekitaldia da Mugertza Krosa. Nire partetik eskerrak eman behar dizkiot Zigorri [Diez], bere familiari eta antolatzaile guztiei, lan bikaina egiten dutelako.

**2012an Burlatako krosean Abel Mutai atletak bide okerra hartu zuen, eta lasterketa irabazteko aukera izan zenuen. Hala ere, bide zuzena zein zen esan zenion eta berak irabazi zuen proba. Oihartzun handia izan zuen horrek. Nola gogoratzen duzu?**

Egoera oso polita izan zela gogoratzen dut. Nire bizitzako une garrantzitsuenetako bat bilakatu da, eta atleta moduan ezagutzera

ematen lagundu dit. Une hartan hori irten zitzaidan barrutik eta gehiegi pentsatu gabe egin nuen. Ez nuen uste lasterketa hura nik irabazi behar nuenik. Mutai ni baino hobeto aritu zen lasterketa guztian, eta bera zen argi eta garbi lasterketa hartako irabazlea. Proba amaitu ostean saiatsu nintzen berarekin hitz egiten, baina ez berak eta ez nik ez genuen ingelesa menperatzen, eta ezin izan ginen komunikatu. Besarkada bat eman zidan eta uste dut horrekin esan zidala esan beharreko guztia. Harrituta geratu naiz keinu hark izan duen oihartzunarekin. Sare sozialetan berehala hedatu zen, eta jende askok idatzi zidan txalotzeko. Kontrakoa pentsatzen zutenak ere baziren, baina mezuen %99 positiboak ziren, eta horrekin geratzen naiz. Oraindik ere jendeak gogoratzen dit keinu hura. Beharbada jendeak gehiago ezagutuko nau keinu harengatik, nire kirol loperne-gatik baino.

Iritzia: *Anjel Lopez*

## Atletismoaren jaia iritsi da

Badator atletismoaren jaia, aurten inoizko gorenen! Urtero legez, urtarrikal ekarritako hotzarekin batera datorkigu Juan Mugertza krosa. Umetatik gogoratzen dut urte berriarekin Mintxetako zelai berdeak, aldapa malkartsuak eta futbol zelaia korrikalariz betetzen zirela. Ez ziren edonolako korrikalariak ordea, horietako asko munduko txapeldunak izandakoak edo munduko txapeldun izatera helduko zirenak baitziren. Urduritasuna, ilusioa, sufrimendua eta batez ere atletismoarekiko maitasuna usain zitezkeen Mintxeta inguruetan urtarrikal utzitako lehen egun horietan. Atzean geratu dira sari moduan ematen ziren eskopetak, hozkailuak eta Mariano Harok hain gustuko zituen angulak. Dirua da azken urteotan saritzat ematen den oparia.

“Dirua da mundua mugitzen duena” diote askok eta agian ez dabilta guztiz oker, baina ez da diru kontua Juan Mugertza krosa handi egiten duena, noski ezetz! 12 kros-ek osatzen dute atletismoaren *champions*-a eta Juan Mugertza Krosak talde pribilegiatu horren barruan sartzea lortu du aurten estreinakoz.

Galanta da Eibarrek futbol arloan lortu duena lehen mailara igota. Sinesteko zaila askorentzat 27.500 biztanle inguru dituen herri bat Madril eta Bartzelona bezalako hirien aurka orpoz-orpo lehiatzea (3.234.000 Madril, 1.621.000 Bartzelona). Konparaketak ez omen dira ondo ikusiak, baina ezin izan diot tentazioari eutsi. Zer iruditzen zaizue orduan Elgoibarrek lortutakoa?

Elgoibar 11.438 biztanleko herri txiki bat da, ez oso erakargarria agian (eder edo itsusi, zein begik ikusi...), orain dela urte ez askora arte “jai giro” fama zuena eta bere industriagatik ezaguna zena. Lehen begi golpearekin batera, ez du oso erakargarria ematen, baina ezaugarri bat aipatzea ahaztu zait: Elgoibarrek Juan Mugertza krosarekin duen lotura, horrek egiten baitu handi kirol alderdian bada ere. Lerro batzuk lehenago Elgoibarko biztanleriari buruzko datua eman dizuet, hona hemen, gure krosarekin buruz-buru lehiatzen diren beste hiri batzuen datuak: Berlin 3.502.000; Edinburgo 495.000; Chiba 909.497; Nairobi 3.138.000... Ez al da harrigarria lortu duguna?

16 urte pasa dira jada aitaren eskutik atleta afrikarrak Mintxetako maldetan gora lehenengoz hegan ikusi nituenetik, 11 urte irabazi nuenetik (alebin mailan) eta oraingoan, kroseko fisioterapeuta moduan jardungo dut. Festa bizitzeko hiru modu desberdin, Juan Mugertza krosaz gozatzeko hiru optika desberdin. Seguru nago aurten-go 10.796 metroek ere ez digutela hutsik egingo. Anima zaitzte zuek ere!



# UDAL AURREKONTUA

## iaz baino %6 handiagoa

**EAJ eta PSE-EEren botoekin onartu zituen atzo Elgoibarko Udalbatzarraren Osoko Bilkurak 2014ko aurrekontuak. Edizio hau ixteko orduan, EHBilduk eta PPK kontra bozkatzeko asmoa zuten.**

**E**lgoibarko Udalak 13.682.562,85 euroko aurrekontua onartu du 2015erako, iaz baino 793.258 euro gehiago, hain zuzen ere. %6,15 handitu da aurrekontua. EAJk nabarmendu du Elgoibarko Udalaren egoera finantzieroa ona dela, eta une honetan 1.081.035 euroko aurrezki garbia daukala.

Aurrekontuak sailka aztertuz gero, sail guztiek jasoko dute aurren diru gehiago, baina sail batzuetan igoerak txikiagoak izan dira besteetan baino: Segurtasun Sailak izan du igoerarik txikiena (625,6 euro), eta horren atzetik Ongizate Saila da iazkoarekin konparatuta diru gutxien jasoko duena (4.150,3 euro). Beste muturrean Hirigintza Saila dago, berak izan baitu igoerarik handiena (652.411,4 euro). Azkeneko urteetako joera mantendu da aurtengo aurrekontuetan ere, eta Hirigintza Sailak jasoko du diru gehien: 5.948.446,35 euro.

Hirigintza Sailaren barruan inbertsio errealen atalak 1.929.263,5 euro hartuko ditu, aurrekontuaren %14,10, hain zuzen ere. Inbertsio aipagarrienen atalean, 200.000 euro aurreikusitu ditu Udalak Bolatokian dagoen lokala erosteko. Aita Agirre plazako kulturgunearen segida izango da lokal hori, eta herriko elkarteek erabiltzeko egokitzeko dute. Lokal horrekin batera, 112.000 euro inbertituko dituzte Pedro Muguruza kaleko Izpi enpresaren lokala egokitzeko. Aita Agirren obrak egin bitartean eraikin horretan dauden elkarteak han kokatuko dituzte. Beste inbertsio garrantzitsu bat memoria historikoa berreskuratzeko egingo dute: 200.000 euro erabiliko ditu Udalak kolunbarioa egiteko. Diru hori aurreratuko du Udalak, baina gero Jaurizaritzak itzuliko dio. Frankismoan desagerrarazitakoen kolunbarioa egingo du Jaurizaritzak Elgoibarren, 36ko gerratik Francoren diktadura amaitu arteko biktimak oroitzeko.

- Elgoibarko Udal aurrekontua: 13.682.562,85 euro
- Aurrekontu bateratua (Udal aurrekontuari San Lazaro egoitza eta Kirol Patronatua gehituta): 15.816.062,85 euro
  - San Lazaro: 1.430.600 euro [Udalak ez dio ezer transferituko, berak sortutako baliabideekin eta aurreko urteetan metatutako diruzaintza gerakinarekin aurre egingo die aurtengo gastuei].
  - Kirol Patronatua: 1.152.622 euro

### SARRERA AIPAGARRIENAK

Zuzeneko zergak	3.359.141,94 (%24,5)
Tasa eta beste sarrera batzuk	2.155.674,04 (%15,7)
Transferentziak arruntak	7.161.735 (%52,34)

**Sarrerak guztira 13.682.562,85**

### GASTU AIPAGARRIENAK

Pertsonal gastua	3.958.271,94 (%28,9)
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	5.661.570,35 (%41,3)
Transferentzia arruntak	2.056.953,47 (%15,03)
- Debegesa	140.000
- Debemen	28.000
- Kirol Patronatua	449.722
- Elgoizinema	28.000
- Musika Eskola	413.730
- Musika eta Dantza Federazioa	
EMUDAFE	173.075,90
- DEBABA euskaltegia	144.832
- Elgoibarko Izarra	153.000
- Larraldietarako gizarte laguntzak	135.000

**Inbertsio errealak 1.929.263,50 (%14,10)**

**Gastuak guztira 13.682.562,85**

### KONPARAKETA URTEZ URTE

	16.861.269,81	14.340.734,39	13.477.135,76	12.714.216,00	12.553.391	12.889.304	13.682.562,85
<b>GUZTIRA</b>	16.861.269,81	14.340.734,39	13.477.135,76	12.714.216,00	12.553.391	12.889.304	13.682.562,85




## 2015eko INBERTSIO NAGUSIAK

Mugiezinetan konponketak	80.000	Sigma eta Altzolan inbertsioak	100.000
Hiri-altzariak	50.000	Landa lurretan lanak egitea	185.000
Lokal berria erostea	200.000	Juan Mugertza kaleko konponketak	65.000
Hilerriko memoria historikoa (Kolonbarioa)	200.000	San Rokeko zubiko konponketak	87.000
Izpi lokala egokitzea	112.000	King-Kong zubiko konponketak	15.000
Gaztetxea egokitzeko lanak	50.000	Andonegi etxe ingurua urbanizatzea	30.000
Lekueder plazako urbanizazioa	80.000	Santa Klarako espaloi eta haur parkea	30.000

## 2015KO AURREKONTUAK, SAILKA

	2014	2015
<b>BARNE SAILA</b>	<b>2.463.265,09</b>	<b>2.541.808,04</b>
<b>SEGURTASUN SAILA</b>	<b>1.270.996,00</b>	<b>1.271.621,28</b>
<b>HEZKUNTZA SAILA</b>	<b>597.832,00</b>	<b>626.516</b>
<b>KULTURA SAILA ETA LIBURUTEGIA</b>	<b>918.812,34</b>	<b>928.133,24</b>
<b>EUSKARA SAILA</b>	<b>384.409,89</b>	<b>388.325,75</b>
<b>ONGIZATE SAILA</b>	<b>1.093.721,57</b>	<b>1.097.871,86</b>
<b>HIRIGINTZA SAILA</b>	<b>5.296.034,94</b>	<b>5.948.446,35</b>
<b>OGASUN SAILA</b>	<b>526.234,09</b>	<b>534.905,67</b>
<b>GAZTERIA</b>	<b>298.698,20</b>	<b>302.934,26</b>
<b>BERDINTASUN SAILA</b>	<b>39.000</b>	<b>42.000</b>





## “Kudeaketa arduratsu eta erantzulea egitea da gure helburua, baliabideak neurtuz eta zorroztasuna eta erantzukizuna erabiliz”

“Legealdi honetako azkeneko aurrekontua. Lau urte hauetan aurrekontuak estutuak izan dira. Denok pairatu ditugu ondorioak: herritarrek, udal langileek, udal diru-laguntzen onuradunek, eta zerbitzu publikoen inguruan lan egiten duten guztiak. Hala ere, aurrekontuetan oreka landuz, besteak beste, lortu dugu kalitatezko zerbitzuak eskaintzea, gastu soziala bermatzea eta beharrei erantzutea, kultur eta kirol arloan aukera eta eskaintza bikaina izatea, euskararen erabilera aurrera egitea eta azpiegiturak mantendu eta modernizatzea. Lortu dugu. Elgoibarren bizi-kalitatea ona da oro har, eta garaietara egokitutako herri bat dugu.

Kudeaketa zuzena, herrian ditugun arlo ezberdinetako (kulturgintza, gizartegintza, industriagintza,...) eragileekin elkarlanean, herriaren etengabeko eraldaketa gidatzea da. Kudeaketa arduratsu eta erantzulea egitea da gure helburua, baliabideak neurtuz eta zorroztasuna eta erantzukizuna erabiliz.

2015ean modu berdintsuan jarraituko dugu. Hauteskunde urte honetan esku artean ditugun eta ohikoak diren ekimenak exekutatu ditugu, eta hurrengo udal gobernari ez diogu inolako karga edo hipotekarik utziko. Ez hori bakarrik, krisitik irten eta herritarrentzat proiektu eta egitasmo garrantzitsuetan murgiltzeko moduko kontuak utziko ditugu. Inbertsioetara 1.929.263 euro bideratu dira. Aipatzekotan: Kultura–Euskara–Hezkuntzaren inguruan azpiegituren inbertsioak (Aita Agirre); hilerrian memoria historikoaren inguruan egingo den azpiegitura; Lekueder plaza urbanizatzea; Juan

Mugertzan, San Roken eta Trenbide kalean, tren geltokiaren inguruan, konponketak eta urbanizazio lanak egitea; King Kong-eko zubian egokitze-lanak, Altzola eta Sigman inbertsioak, landa auzoak...

Beti esaten dugu, eta orain ere bai, Udal honen egoera ekonomiko-finantzarioa oso saneatuta dagoela. Urtez-urte ematen ari garen diagnostikoa mantentzen da. Aurrekontu proiektu honek 1.082.000 euroko aurrekia sortu du, sarrera eta gastu arrunten arteko diferentzia. Aurrezki honek dirua inbertsioetara edo aurrezki bideratzeko ahalmen zabala emango digu. Magnitude hori urtez urte igotzen joan da, denen ahaleginari esker. Elgoibarko Udalak bi erakunde autonomo ditu bere kargura, biak ere osasuntsuak. Udal Kirol Patronatuak Udaletik 450.000 euroko transferentzia jasoko du 2015ean, aurreko urtean baino %14 handiagoa, hainbat urtetan izoztua egon baita. San Lazaro egoitzari dagokionez, aurtengo aurrekontua aurreko urtekoaren berdina da. Denok dakigun moduan, urte honetan zehar egoitzaren jabetza Foru Aldundiari besterenganatuko zaio. Beraz, egoera iragankor honetan gauzek zeuden moduan jarraituko dute.

Bukatzeke, lehen esan bezala, aurrekontu hau 2011-2015eko legealdiko azkena da. Urte hauetan, aurrekontua diseinatzerakoan Legealdi Planaren helburuak izan dira oinarri. Martxoan, Legealdi Planaren ebaluazio bat ezagutzera emango da, ardatz nagusien eta ekintza zehatzen gauzatze mailaren berri emanez”.



## “Aldeko botoa emango dugu 2015eko aurrekontuetan”

“PSE-EEk egindako aurtengo aurrekontua, teknikariaren eta alkatearen baimenarekin hauxe da: Alde batetik, zenbaki orokorrrak aipatuko ditut hemen, eta bestetik, gure saila atalez atal zertan handitu dugun, eta hainbat kontu berri ere bai.

OROKORRA 2014an: 1.093.721, 57€  
2015ean: 1.097.871,86€

1. Etorriberrientzako Harrera Programa: 7.000€. 2014an, 3.840 eurokoa izan zen. Etorrinei erakusteko Elgoibarrera etortzen direnean zer pauso eta nola eman behar dituzten bertakotzeko.

2. Osasunerako Hezkuntza: 10.000€. 2014an, 6.000€.

3. Pendiente dauden espedienteak aztertzeke: 19.000€. Barruko lanak arinduta, programak ere lehenago beteko dira.

4. Administrazioarako laguntza: 19.000€. 2014an, 18.000€. Honenkin bi gauza egiten dira: alde batetik, barruko administrazioako lanak arindu eta bestetik, herritarrek itxaron beharreko denbora murriztu, era horretan azkarrago bideratuko direlako gaiak.

5. Haurren babeserako protokoloa: 6.000€. Programa hau Gipuzkoako Foru Aldundiaren bitartez dator, eta helburu bat du: ikastetxei laguntzea haurrek izan ditzaketen arazoak antzematen.

6. Eskoletarako laguntzak: 18.000,01€. 2014an: 16.399,99€. Diru-laguntza hauek zentroek izendatua dituzten programen arabera dira, eta horregatik daude, denak bloke berean.

7. Programa Pauso Berriak TP Gureak 3.300€.

Datu hauei gehitu behar dizkiegu Hirigintzatik datozen datuak, baina Gizarte Ongizate Sailatik eskatuta daudenak, esaterako hauek:

1. Txanpinoia berritzeko eta Asmaola Programaren barne dauden gazteen lokal barruko azpiegiturak berritzeko: 6.000

2. Bakarrik bizi diren pertsonen eta adinekoen etxeak su-arriskutik babesteko azpiegiturak egokitzeke: 10.000€.

Hau guztia kontuan izanik, aldeko botoa emango dugu”.





## **“Igoera bat berri ona da, beti ere herritarren beharrei erantzuteko bada. Tamalez, ez da horrela izango”**

“Udal aurrekontuaren arabera 2015ean diru gehiago izango dugu gastatzeko. Horrelako igoera bat, eta gehiago bizi dugun krisi egoeran, berri ona da, beti ere herritarren beharrei erantzuteko bada. Tamalez ez da horrela izango.

1. Aurrekontuak izango duen igoera ia osoa Hirigintza Sailera zuzendu da. (760.000 eurotik 650.000ra). Beste sailetan igoera ez da %6 horretara hurbiltzen ere. Helburua garbi dago, herria “txukunduz” legealdi honetako udal kudeaketa eskasa ezkutatzeko. Hauteskundeak pare-parean ditugula ezin ahaztu!


2. Ongizate Saila ez dago udal gobernuaren lehentasunen artean. Legealdi osoko bilakaera begiratzeko badugu egoera oraindik kezka-garriagoa da, ongizate sailaren pisu espezifikoak jaisten joan baita. Jorera horren salbuespena 2013an dugu, urte horretako aurrekontuetan EHBildutik lortu baikenuen saila diru gehiagoz hornitzea.

Nola ulertu hau? Gizarte arloan kudeatzen diren programak eta diru-laguntzak diru nahikoz hornituta daudela pentsatu behar dugu? PNV eta PSEren ustetan, baietz dirudi.

3. Herriko kultura, euskara, hezkuntza eta gizarte arloko eragileak jasotzen dituzten diru-laguntzak %3,32ko igoera izan dute, 33.000 euro gehiago. Kontua da ia 31.000 euro joan direla bi erakunderen eskutara (Musika Eskola eta musika eta dantza federazioa). Ez da gure asmoa inolaz ere bi erakunde horiek izan ditzaketen beharrak zalantzan jartzea. Zalantzan jartzen duguna da ea herriko eragileen sareak jasotzen al duen Udaletik babes nahikoa.

Bukatzeko azpimarratu nahi dugu gure estiloa, legealdian zehar erakutsi dugun bezala, ez dela kritika hutsean geratzea, eta oraingo honetan ere eskaini diogula EAjri aurrekontuak adosteko prozesu bat irekitzea, beti ere honako lan ildoak garatuz:

- Etxebizitza hutsak merkaturatzeko eta alokairua sustatzeko egitasmoa.
  - Hondakinen bilketaren inguruan plangintza orokorra adostea eta Hondakinen lantaldea eratzea.
  - Prekariatatearen mapa egiteko konpromiso sendoa.
  - Herri partaidetzari buruzko udal planaren gutxieneko edukiak zehaztea, urteko helburuak eta prozesuak adostuz.
  - Herriko kultur sortzaile eta eragileen aldeko egitasmoa.
- Horrela ez bada, EHBilduk ez ditu 2015erako aurrekontuak babestuko [asteartean idatzitako testua da].”



## **“Aurrekontu hauek ez dira Elgoibarko familiei laguntzeko diseinatu”**

“Aurrekontu hauek ez dira arazoak konpontzeko diseinatu, eta ezta Elgoibarko familiei laguntzeko eta elgoibartarren egunerokoa hobetzeko ere.

Gauza bera errepikatzen da urteetan: Alfredo Etxeberriak eta EAJk ahaztu egin dutela elgoibartar guztien alkate direla eta Elgoibarren onerako pentsatzeko daudela.

Duela urte batzuetatik hona, Alfredo Etxeberriak eta EAJk aurkeztu dituzten eta PSE-EEren babesarekin onartu dituzten aurrekontuak EAJ beraren eta haien “lagunen” intereserako eginda daude bakar-bakarrik.

Elgoibartarrek gogoratu beharko lukete, eta are, kasuren batean jakin beharko lukete, hori guztia PSEren laguntzari esker ari dela geratzen, Elgoibarko PSE oso otzana delako EAJrekiko. Gure ikuspuntutik, PSEk uko egin dio elgoibartarrei agindu zizkien konpromisoen alde egiteari, EAJk gehiengorik ez duenez euren esku izan dutelako egin zituzten promesak bete eta agindu zituzten konpromisoak betetzea, baina uko egin dio horri Alfredo Etxeberriaren eta EAJren borondateari men eginda.

Aurreko urteetan bezala, Alderdi Popularrak hainbat zuzenketa aurkeztu ditu, beti ere, kultur elkarteetara, euskararen sustapenera, irakur-

zaletasunaren sustapenera, liburutegira, IMHra eta Jubilatuen Egoitzara zuzendutako diru-laguntzak handitzeko. Aurten, gainera, beste zuzenketa bat aurkeztu dugu Udalak diru-laguntza zuzen bat sor dezan Jairo Berbel elgoibartarrak Ekuadorren minbiziaren kontra egiteko sortu nahi duen Neska Politia Fundazioari laguntzeko.

Beste hainbat zuzenketa ere aurkeztu ditugu elgoibartarrei liburutarako eta gastu, jangelako eta ikasleentzako garraio gastuak arinduko dizkieten laguntza ekonomikoak sortzeko.

Proposamen horiek guztiak publizitatean eta propagandan, lan-teknikoetan, eta ikerketa eta proiektuetan gastatzen dena murriztuta finantzatzen ditugu, iruditzen baitzagu aipatutako diru-partida horiek puztuta daudela.

Ikusteko dago gainerako udal taldeek zer jarrera hartzen duten, baina aurreko urteetan gertatutakoa errepikatzen bada, Alderdi Popularrak aurkeztutako ekimen hauek guztiak baztertuak izango dira. Hala ere, inork ezingo digu leporatu proposamenik aurkeztu ez dugunik eta gauzatu ezin direnik, horiek finantzatzeko guk ez baitugu ezer kentzea eskatu, partida batzuk findu eta doitzea baizik”.

# AINARA LADRON eta JOSEBA ZINKUNEGI

Libre eguna antolatu dute Elgoibarren biharko, eta horren harira, Auzitegi Nazionalera iritsi diren azkeneko bi auzietan nahastutako bi lagunak hitzak ekarri ditugu hona, Joseba Zinkunegi (Eibar, 1966) eta Ainara Ladronenak (Elgoibar, 1984), hain zuzen ere. Abokatuaren kontrako operazioaren ondoren, berriro Auzitegi Nazionalera deitu zain dago Joseba Zinkunegi, legez kanporatzearen garaian Batasuna berregituratzen saiatzea egotzita *04/08 sumarioan* auzipetutako gainerakoekin batera. ETAko kide izatea leporatuta, hamarna urteko kartzela zigorra eskatzen dute fiskalak eta herri akusazioak haientzat. Ainara Ladron, berriz, kargurik gabe libre laga zuten Auzitegi Nazionalen 28 gazte independentistaren kontra egindako azken epaiketan.

**“Konponbidea lortzeko justizia ere egokitu behar da bizi dugun garai berrira”**

Bi sumario ezberdin dira zuenak, baina hein batean, ezaugarri beretsukoak. Ala?

J.Z.: Guztiz epaiketa politikoak dira, zentzugabeak oso, eta ikusita zein kontestu politikoan bizi garen, anakronikoak ere bai. Kontuan izan 2011n izan zela Aieteko Adierazpena eta horren ondoren etorri zela gero ETAK borroka armatua behin betiko amaitzea, aro berri baten hasiera beraz, nahiz gaur gaurkoz emaitzak oraindik diren bezalakoak diren. Testu inguru horretan etorri dira eta etorriko dira jardun politikoan dabil-tzan hainbat militanten kontra bultzada politiko hasitako epaiketak. Eta zergatik den hori? Bada, PPreneko gobernu eta estatu espainola oso deseroso bizi direlako zabaldu dugun aro berri honetan eta eraman nahi gaituztelako 2011 aurreko giro politiko nahasi hartara.

‘04/08 sumarioan’ auzipetutako batek zioen gatazka ez dela Espainiaren eta ETArekin artekoa, etorkizuna eraiki nahi duen herri baten [Euskal Herria] eta hori egitea eragotzi nahi dion estatu baten artekoa baizik. Zer diozue?

A.L.: Hala dela. Euskal Herria unilateralki pauso batzuk ematen ari da, bere etorkizuna zein izango den erabaki nahi duelako, baina joku-eremu horretan estatu espainola ez dago eroso eta nahiago du sufrimendua luzatu, horretarako prozesua oztopatu. Bitarteko ezberdinak era-



biltzen ditu horretarako, baina batez ere, ahalik eta epaiketa gehien hasten ditu, herria eraikitzen egon beharrean epaiketei erantzuten egon daitezkeen euskal herritarak. Ez du asmatzen, baina tematuta ari da. Konponbiderako ahalegina tratatuz, frustrazioa sortu nahi dute euskal herritarrengan, eta ez ezker abertzalekoongan bakarrik.

Hasi gaituzten zurekin, Joseba, gaurkotasan handiagoa duelako zurekin. Hamar urte pasatu dira zuen auzian lehenengo atxiloketak gertatu zirenetik, eta, auzi saioa hasi behar zen egunean, Guardia Zibilak hamasei lagun atxilotu zituen, gehienak abokatuak. Zer balorazio egiten duzue?

Ikaragarria da. Epaiketa hasi behar genuen egunean atxilotu zituzten, batzuk Madrilera bertan. Lotsagarria izan zen, gutako batzuen defentsako abokatu izanik Auzitegi Nazionalera agertzekoak zirelako, prest zeudelako beraz epaile aurrera agertzeko, baina epaitegitik zitazio huts bat egin ordez, atxilotu egin zituzten, bi egunera libre uzteko. Garbi gelditu da atxiloketak ez zirela beharrezko, baina espektakulua eman zuten iritzi publiko nahasteko eta hori lehen aipatutako anakronismo horren beste adibide bat da.

Zein egoeratan zaudete orain?

J.Z.: Geuk eskatu genuen epaiketa eteteko gutako batzuk defentsara-



ko abokaturik gabe gelditu ginelako, eta aste honetan bertan jaso dugu hurrengo saioetarako notifikazioa Correosen. Printzipioz hil honen 29-30ean izango genituzte auzia berrartzeko saioak eta otsailerako ere izendatu dizkigute egun solte batzuk. Hortik aurrerakoak lehendik izendatutakoak izango dira. Sei hilez luzatuko da epaiketa, eta hori bera ere, denboran horrenbeste luzatzea, bada salatzekoa.

**Defentsako abokatuak era horretan erabilia, zer berme juridiko izan dezake auzi honek?**

**J.Z.:** Ezin duzu gehiegi pentsatu horretan. Hori da Estatuak bilatzen duena, politikoki jendea anulatzea. Badakigu, hala ere, ezin dugula etsi, aurrera egin behar dugula, baina egia da ezpata hori hor dugula beti gainean eta horrek ezinegon bat sortzen duela. Horrek eta Poliziaren jazarpenak berak ere asaldatzen zaitu eta asaldatzen ditu inguruok, baina hori da daukaguna. Egia da, hala ere, epaiketa hasi aurreko asteetako urduritasun hori ezin dela saihestu.

**A.L.:** Egia da ezin diezula zure etorkizuna baldintzatzen utzi, baina pertsonak gara, eta denok daukagu etorkizuna planifikatzeko joera. Familia izan nahi duzula, bada aurrera egin behar duzu, baina kezka hor dago beti.

**Abokatuak Elkargoak ez ezik, Eusko Legebiltzarrak berak ere arbuia du sarekada hori, EAJren eta EH Bilduren babesarekin.**

**J.Z.:** Babes handia jaso dugu, baina nik uste dut badela ordua babesa agertzetik haratago jotzeko, ezin dugulako baimendu herri honek eraiki nahi duen bake eta eszenatoki demokratikoa estatuak baldintzatzea. Pausoak eman behar dira.

**Zeinek eta zein norabidetan?**

**A.L.:** Askok jendeartean esku dago. Herritarrek eman behar dituzte pausoak, hori egin ezean alderdi politikoak ez direlako mugituko. Pausoak ematera behartu behar ditugu. Euren oinarri soziala etengabe pausoak emateko eskatzen dagoela ikusten badute, derrigortuta sentituko dira, baina bestela jai dago hemen, oso eroso daudelako. Zain egoten gara gehiegitan, eta kontziente izan behar dugu giltza gurek dugula. Behartzen baditugu gure ordezkari politikoak pausoak ematera, iritsiko da eguna estatua hormaren kontra sentituko dena.

**Zu zeu, Ainara, libre gelditu zinen, fiskalak berak zuen kontrako akusazioak erretiratu ostean. Zein da zure egoera orain?**

Pertsonalki karga handia kendu nuen, egun batetik bestera neure etorkizuna epe luzeago batera ikusteko aukera sentitu nuelako. Baina hori alde batera lagata, egia da hemen ezer ez dela amaitu. Epaiketa bera zentzugabea izan da hasieratik, eta 16 gazte epaiaren zain daude oraindik. Hiru astetan amaitu zezaketen kontu bat hiru hilabetez luzatu dute, gu eta gure ingurua ahultzeko, horrek kostu personal, psikologiko eta ekomiko handia dakarrelako. Hiru hilabetez epaiketan zer gertatzen ari den begira izan dute herri oso bat, eta hori estatu espainolak darabilen gerra-estrategia horren parte da. Guk beti esan dugu Auzitegi Nazionala ez dela nor gu epaitzeko, ez duela inolako zilegitasunik, besteak beste Euskal Herria zigortzeko gerra-epaitegi bat delako. Gure kontrako akusazioak torturapean ateratakoak izan dira, eta hori garbi gelditu da Istanbulgo protokoloa oinarri hartuta perituek sinesgarritasun erabatekoa eman dietelako gure tortura salaketei.

**Zuen aurretik epaitu zituzten 26/11 sumarioko 40 gazte independentistak albsolbitu egin zituzten, lau urte eta erdiko prozeduraren ostean. Espero zenuten emaitza hau?**

Bai. Gu berez haien jarraipena ginen, beraz bertan behera gelditu behar zen dena, baina ez. Haiek ez bezala, gure torturatzaileekin sala beheran egotera behartu gintuzten gu, eta horrek pentsarazi zidan epaiketa ez zela ondo amaituko. Eta gero, epaiketako azkeneko egunean, hamabi auzipetu kargugabetu gintuzten, inolako azalpenik eman gabe. Garbi dago hemen ez dela ezer amaitu. 16 lagun epaiaren zain daude, kolokan dute etorkizuna, eta gainera, batez beste denok egin ditugu 17 hilabete kartzelan, torturatu egin gaituzte eta gure salaketak artxibatu ta daude.

**Desobedientzia zibila indartzeko ekintzak antolatu zenituzten 'Libre' lelopean eta oihartzun handia izan zuten. Gustura zaudete?**

Lortu genuen jendartea gehiago inplikatzeko eta desobedientzia zibila ren bidean atea irekitzea. Guk beti diogu desobedientzia zibila izate eraitzaila izan behar duela eta ez dela erasoei erantzutera mugatu behar, eta zentzu horretan, nik uste dut zerbait egin dugula aurrera, desobedientzia zibila epaiketaren kontra egiteko erabili dugulako epai baten kontra egiteko barik. Aldea bada go.

**Gertatutakoak ikusita, ilusioak edo etsipenak du indar gehiago zuengan?**

**A.L.:** Uste dut jendeak baduela borondatea elkarrekin gauzak egiteko, batzen gaituena gehiago delako banatzen gaituena baino.

**Aro berria?**

**J.Z.:** Erreparoa ematen du 'aro berria' esateak, baina nik uste dut batzuek instalatu nahi duten desilusio hori garaitzeko ilusio handia dagoela kalean eta urrats handiak egin direla bide horretan. Erabakiak hemen hartu behar dugun kontzientzia hartu dute herritarrek. Batzuk geldi daude oraindik, hala ere. Atxiloteten ondotik PNVk eman duen erantzuna ulertezina da. Estatu honek ez dauka guretzako eskaintza demokratikorik eta hauekin bakerik izango ez dugula jakinda, ulertezina egiten da PNVk geldi jarraitzea.

**A.L.:** Eroso daude PNVko buruak, baina aldi berean esan behar da PNVren oinarri sozialean mugimendu bat nabari dela. Gertatzen ari dena ulergaitza zaie askori, eta iaz esaterako, oso argi gelditu zen hori, PNVk, bere oinarri sozialak behartuta, Bilboko manifestazioarekin bat egin zuenean. Hemen ez dago besterik: denok elkartu behar gara indarra egiteko. Denok daukagu erreparoa, baina guk ere, iraganak pisu handia duelako denongan, baina denontzat zaila izanda ere, elkarlana sustatu behar dugu. Eta hor aipatu behar da Gure Esku Dago egiten ari den lana, oso ondo lortu duelako ideologia ezberdinak batzea. Nahiko nuke denok elkartzeko egun bat izatea biharkoa, batekoak zein besteak.

**J.Z.:** Biharko egunari begira bi gauza esan nahi nituzke nik: batetik, jaso dugun babesa eskertu eta, bestetik, esan, espetxeak husteko garaia dela, betetzeko beharrean. Benetako konponbidea lortzeko justiziak ere egokitu behar du bizi dugun garai berrira. Europa ere esan eta esan ari zaio estatu espainolari oker dabilela.

## Ekintzaz beteriko asteburua izan dugu, San Anton Eguna ospatzeko

**B**iraka dantza taldeak hasi zituen barrixakuan San Anton jaietako ekitaldiak, eta euripean egin zuten dantza. Kalegoen plazatik Maalaraino dantzan joateko asmoa zuten, baina Kalebarren plazan amaitu zuten dantzaldia, euri jasa handia bota zuelako. Gauean, ateri baina hotz zegoen Sigmako probalekuan, eta ikusle gutxi batu ziren astoen desafioa ikusteko. Une berean, San Anton pilota txapelketako finalak jokatzeko ari ziren ikastolako frontoian. Ekaitzaren ondorioz argia joan zen frontoian, eta tarte batean eten egin zen partida. Promesetan, Hernandez eta Floresek irabazi zuten, eta nagusietan Larrañagak eta Murgiondok jantzi zuten txapela.

Zapatuan urteroko zigilu erakusketa inauguratu zuten Altzolatarren dorretxea fi-



latelia elkarteko kideek. Sendabelarrak izan da aurtengo gaia, eta hilaren 25era ar-

te egongo da ikusgai erakusketa. Argazki gehiago ikusteko: [www.barren.eus](http://www.barren.eus)





# NATALIA MELLADO

Kantaria

Manolo Escobarren omenez sortutako 'Mi carro lo tienes tú' musikala ikusteko aukera izango da gaur gauean Elgoibarren (Herriko Antzokian, 20:30). Obran, Natalia Mellado kantari elgoibartarrak parte hartuko du Manolo Escobarren alaba Vanessarekin batera. Hunkituta aritu da Mellado BARRENEKIN, herrira itzuli bezperan.

**“Berezia da aitabitxia izan dudana Manoloren omenez sortutako musikarekin itzultzea herrira”**

Lau urteren ondoren Elgoibarrera zatoz Manolo Escobarren omenez sortutako *Mi carro lo tienes tú* musikarekin. Zein paper beteko duzu?

Zuk esan bezala, Manolo Escobarren omenez sortutako lana da, baina jendeak ez dezala pentsatu haren bizitzari buruzkoa denik. Badu haren bizitzatik, jakina, baina hori baino gehiago da. Manolo zenaren alaba bera, Vanessa Escobar, da obrako protagonista nagusietako bat, Manoloren alaba papera beteko duena, eta haren laguna izateaz gain, pitonisa edo igarle baten papera beteko dut nik. Vanesak ezin du bere aitaren heriotza gainditu, eta gu, obrako gainerako lau pertsonaiok, hari laguntzen saiatuko gara. Bestera eman dezakeen arren, obra komikoa da, Manolo bera ere oso alaia eta xelebrea zelako, eta bera omentzeko izanik, ezin zitekeelako gidoia beste modu batekoa idatzi. Momentu batzuetan hain da barregarria, neuri ere kosta egiten zaidala haria jarraitzea.

**Umorez landu duzue beraz kontua, baina jakinda zuk zeuk zein harreman estua izan zenuen Manolo Escobarrekin, pentsatzekoa da prestaketa lanak ez zirela horren gozoak izango, ala?**

Ez dira izan, ez. Kontuan izan bere ilobak idatzi duela obra eta alabak ere parte hartzen duela, eta neuretzat ere, Manolo oso pertsona berezia izan dela. Artista baino gehiago, pertsona izan da niretzat



Manolo, lagun gertukoa, eta bai, tripak sarri nahastu zaizkit azkenean hilabete t' erdi honetan, obrak berak oroitzen asko ekarri dizkidalako burura, baina, aldi berean, oso polita izan da.

**Sorterrira itzultzea beti izango da berezia, baina oraingo hau ez dakit ez ote den bereziagoa izango zuretzat.**

Bai, zalantzarik gabe. Kontuan hartu lau bat urte izango direla hor [Elgoibar] azkena izan nintzela. Orduan ere, Manolok elgoibartar guztientzako agur bat grabatu zidan bideoan, kontzertua hasi aurretik emateko, eta berezia izan zen Elgoibartik joan nintzenetik nire aitabitxia izan dena ondoan izatea. Eta ordukoa berezia izan bazen, pentsa zer den hau! Oso berezia da urte guzti hauetan nire aitabitxia izan denaren omenezko musikalarekin itzultzea herrira. Hunkituta nago; horregatik, eta sarreraren salmenta bera ere oso ondo doala esan didatelako.

**Euskal Herrian eman duzue aurrez musikal hau?**

Ez. Elgoibarren eman biharamunean Bilbora goaz, hori bai. Izan gara Alacanten, Coruñan, eta aurrera begira emanaldi asko dauzkagu lotuta. Egia esan oso pozik gaude izan duen harrerarekin. Elgoibartarrak ere animatuko nituzke ikustera etortzera. Manolo Escobar gustatu edo ez, oso ondo pasatuko dutelako, berezia delako ikusidutena; berezia, barregarria, eta ikusteko atsegina.



# Euskal Herriko mus txapelketako lehen kanporaketa bihar zortzi jokatu da Elgoibarren

Gipuzkoako finalak otsailaren 20, 21 eta 22an jokatu dira, Alegian

**H**ilaren 31n, bihar zortzi, jokatu da Elgoibarren Euskal Herriko mus txapelketako lehen kanporaketa. Lanbroa tabernan izango da, 16:00etatik aurrera, eta parte hartzeko interesa dutenek bi aukera dituzte izena emateko: 628115677 telefono zenbakira deitu edo orduerdi aurretik agertu. Bikoteko hoge euro ordaindu beharko dira, eta parte hartzaile guztiek jasoko dute saria: botila ardo bana. Txapelkunek, berriz, Lanbroa tabernan lau afari egiteko txartela jasoko dute, eta txapelkunordeek, bi afaritarakoa. Euskal Herriko mus txapelketa lau erregetara jokatzeko da berez, baina Elgoibarren, parte hartzaileek eurek hala erabakita, zortzi erregetara jokatu da. Gipuzkoako finala otsailaren 20, 21 eta 22an jokatu da, Alegian, eta final nagusia, berriz, martxoaren 7an izango da, Lekeition.

## Otsailaren 7an irtengo dira eskean Etxegiñakoak eta mendaroarrak



Otsailaren 7an irtengo dira Elgoibarren Etxegiñako taldekoak koplakantura, eta egun berean irtengo dira Mendaron ere eskera. Etxegiñakoak Bolatokian batuko dira, 9:00etan, eta urteroko ibilbidea egingo dute kantuan. Santa eskera orduko, baina, bi entsegu egingo dituzte: otsailaren 3an eta 5ean, 20:00etan, Kultur Etxeko sotoan. Nahi duen orok parte hartu dezake.

Mendaron, berriz, 8:30ean batuko dira udaletxeko plazan, eta hiru taldetan banatuta, herriko baserri-auzoak eta kalea koplakantuko dituzte. Sei bertsolari arituko dira koplakantuan, talde bakoitzeko bina, eta dagoeneko osatu dituzte bikoteak: Gregorio Larrañaga *Mañukorta* eta Xabat Galletebeitia, Aitzol Urain *Bidaburu* eta Beñat Ugartetxea, eta Beñat Lizaso eta Asier Lazarobaster *Agarre*. Bertsolariak laguntzen herriko trikitilari taldekoak arituko dira, eskera batuko diren heritarrekin batera, eta egun horretan batzen duten dirua Mendaroko Arno guraso elkarlanean izango da. 15:00ak alderako amaituko dute kantuan, eta ondoren, elkarrekin bazkalduko dute guztiek Aizpe gastronomia elkartearekin.

## Estreinatu dira elgoibartarrak Gazteen Auresku eta Soinu Zahar Txapelketan

Zapatuan hasi zen Gazteen Auresku eta Soinu Zahar Txapelketako liga, Legazpin, eta Inazio Bereziartua eskolako dantzariak ere parte hartu zuten bertan. Euskal Herriko hainbat herriko dantzariak parte hartzen dute lehiaketan, bi sailetan banatuta: A saila, 7 urtetik 11 urte bitartekoentzat, eta B saila, 11 urtetik 15 urtera artekoentzat. Tartean, 11 elgoibartar ere arituko dira: Oier Galindo, Gaizka Uranga, Eneko Gonzalez, Amaia Sasiain, Maddi Zabala, Naroa Lopez, Lorena Etxaniz, Irati Marcos, Oihane Agirrebeña, Amaia Astigarraga eta Nerea Sasiain. Zapatuko saioan, 23 neska eta zortzi mutil lehiatu ziren, denak ere B sailekoak, eta tartean baziren gure bi ordezkari ere: Naroa Lopez eta Eneko Gonzalez. Ez zuten egunik onena izan biek ere, baina hala ere, Eneko laugarren sailkatu zen eta Naroa 21. Hurrengo saioa otsailaren 8an jokatu dute, Villabonan.



## Bost filmeko zine-zikloa antolatu du Ongarrik

Ongarri zine-klubak bost filmez osatutako zine-zikloa antolatu du: hiru film Goya sariarekin erlazionaturakoak dira, eta beste bi, Oscar sariarekin. Datorren egunean eskainiko dute lehenengo filma, *La Sal de la tierra* dokumental britaniarra, hain zuzen ere. Donostiako zinemaldian publikoaren saria jaso zuen, eta orain Goya sarietarako izendatuta dago, Europako film onenaren sailean. Film guztiak eguernetan izango dira, 21:30ean.

- *Carmina y amén*, otsailaren 5ean. Carmina Barrios aktore onenaren Goya sarietarako izendatuta dago.
- *Magical girl*, otsailaren 12an. Film onenaren urrezko maskorra Donostiako zinemaldian eta Goya sarietarako zazpi sailetan izendatuta.
- *Dos días y una noche*, otsailaren 19an. Marion Cotillard aktore onenaren sailean izendatuta Oscar sarietarako.
- *Mr. Turner*, otsailaren 26an. Timothy Spall aktore onenaren saria 2014ko Cannes-eko zine jaialdian).

# Astelehenean hasiko da Kilimon Trail mendi lasterketarako izenemate-epea

Apirilaren 12an jokatu da lasterketa, Mendaron



**M**endaroko Txirindulari Elkarteak jakinarazi du apirilaren 12an jokatu dela aurtengo Kilimon Trail mendi lasterketa, eta astelehenean, hilaren 26an, zabalduko dela izenemate-epea eta apirilaren 10ean amaitu. Interesatuak [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com) webgunera sartuta eman behar dute izena. Hala ere, lasterketa egunean bertan ere egongo da izena emateko aukera, beti ere 350 parte-hartzailearen mugara iritsi ez badira. Egunean bertan, 26 euro kobratuko dute izena emateagatik. 10:00etan hasiko da lasterketa, frontoian, eta lasterkariak 23 kilometro pasatxoko ibilbidea osatu beharko dute, eta 1.600 metroko desnibel positiboa gainditu. Irabazleak txapela, garaikurra eta 400 euro jasoko ditu dirutan, 250 euro eta garaikurra bigarren sailkatuak eta hirugarren egiten duenak, berriz, 150 euro eta garaikurra (emakumezkoetan zein gizonezkoetan). Errekorra ontzen duenak, berriz, 200 euroko gainsaria jasoko du. Bestalde, sari berezi bat ere izango da herriko onenarentzat. Informazio gehiagorako: <http://mtemendaro.wordpress.com/#sthash.CnUPhVpW.dpuf>.

## Atxolinera irteera antolatu du Morkaikok biharko



Atxolinera mendi irteera antolatu du Morkaiko mendizale elkarteak bihar goizterako. 8:30ean elkartuko dira Kalegoen plazan, eta antolatzaileek jakinarazi dute ohiko bidetik beharrean Upaigoititik barrena joango direla Atxolinera. Alde batetik igo eta bestetik jaitsiko dira, eta bidean, Kortazabaleko iturritik pasatuko dira.

Joan zen astean Urregarain izan ziren. Lekoiztik abiatu ziren, eta Urregarai gaina egin zuten. Pare bat orduko ibilbidea egin zuen argazkiko talde honek.

## EMAITZAK

### FUTBOLA

Anaitasuna 2 – Haundi 0  
Elgoibar 2 – Urkomendi 1 (1. erreg.)  
Beasain 1 – Elgoibar 0 (Jubenila)  
Ordizia 0 – Elgoibar 1 (Kadete A)  
Eibartarrak 1 – Elgoibar 7 (Kadete B)  
Elgoibar 4 – Burumendi 4 (Lehen. Infántila)  
Billabona 1 – Elgoibar 1 (Infántil txiki)  
Elgoibar 2 – Arrasate 1 (Alebinak)  
Elgoibar 6 – Arrasate 0 (Alebinak)

### ESKU PILOTA

#### Udaberri Txapelketa

##### Pala

Lagunak 23 – Azkoitia 25 (2. mailako nag.)  
Lagunak 18 – Real Sociedad 25 (1. mailako nag.)

##### Eskuz

Lagunak 22 – Lagunak 11 (2. mailako jub.)  
**San Anton Txapelketa**  
Hernandez-Flores 22 / Unanue-Juaristi 19 (Prom.)  
Larrañaga-Murgiondo 22 / Ugalde-Aldape 13 (nag.)

### ESKUBALOIA

Lauko Elg. 23 – Aiala Zarautz 33 (Sen. neska.)  
Alkorta Elg. 29 – Beti Onak 27 (Sen. mut.)  
Etxebarri 29 – Astigarraga Elg. 16 (Jub. neska.)  
Pulpo 20 – Beristain Elg. 29 (Jub. mut.)  
Kukullaga 23 – Tecnifuelle Elg. 20 (Kad. neska.)  
Ordizia 27 – Pneumax Elg. 15 (Kad. neska.)  
Deca Elg. 29 – Bidasoa 28 (Kad. mut.)  
Usurbil 35 – Bankoa Elg. 31 (Kad. mut.)  
Ikus Elg. 33 – Talaiepe 8 (Inf. neska.)  
San Roke Elg. 19 – Aiala Zarautz 23 (Inf. neska.)  
Txarriduna Elg. 37 – Eibar A 17 (Inf. mut.)  
Murgil Elg. 25 – Eibar 22 Inf. mut.)

## AGENDA

### FUTBOLA (Minxetan)

#### Zapatua, 24

10:00 Elgoibar – Sporting de Herrera (Txiki)  
11:30 Elgoibar – Amaiak Bat (Ohorezko kadeteak)  
13:30 Elgoibar – Urki C.D. (Kadete B)  
16:00 Elgoibar – Usurbil F.T. (Haundi)  
18:00 Elgoibar – Zestoa K.B. (Ohorezko jubenilak)

### ESKUBALOIA (Kiroldegian)

#### Zapatua, 24

9:45 Cometel Elg. – San Roke Elg. (Inf. neska.)  
11:00 Pneumax Elg. – Leizaran (Kad. neska.)  
12:30 Bankoa Elg. – Usurbil (Kad. mut.)  
17:30 Tecnifuelle Elg. – Ermua (Jub. neska.)  
19:00 Astigarraga Elg. – Ermua (Kad. neska.)

#### Domeka, 25

9:45 Txarriduna Elg. – Arrasate (Inf. mut.)  
11:00 Beristain Elg. – Pulpo (Jub. mut.)  
12:30 Gabaz Elg. – Usurbil (Sen. mut.)

**LANA**

**ESKAERA**

- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo mugikortasun arazoak dituzten pertsonak zaintzeko. Ospitalean zein etxean. Ezinduk mugitzeko garabiak erabiltzen daki. Gauez ere bai. ☎ **600 005 160**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko. ☎ **631 534 125**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko. Interna edo orduka. ☎ **602 846 244**
- Alemanerazko klaseak ematen ditut. Metodo erraza eta atsegina. ikasle truke eta azterketen prestaketa EOI. ☎ **670 793 312**
- Emakumea edozein lan egiteko prest. Garbiketa lanak, adinekoak edo umeak zaindu, zerbitzari lanak... ☎ **602 377 184**
- Emakumea edozein lan egiteko prest. Garbiketa lanak, adinekoak edo umeak zaindu, zerbitzari lanak... ☎ **632 767 696**
- Emakumea eskaintzen da umeak eta adinekoak zaintzeko, baita garbiketa lanak egiteko ere. Orduka edo interna. ☎ **602 052 260**
- Emakumea eskaintzen da umeak eta adinekoak zaintzeko, baita garbiketa lanak egiteko ere. Paperak legez ditut. ☎ **687 362 773**
- Emakumea eskaintzen da umeak eta adinekoak zaintzeko. Baita garbiketa lanak egiteko ere. ☎ **943 748 899 / 685 724 861**
- Emakumea, lan bila. Interna, orduka edo asteburuetan lan egiteko prest. ☎ **626 914 904**
- Emakumea sukalde laguntzaile edo garbiketa lanetarako prest. ☎ **636 882 838**
- Emakumea eskaintzen da umeak eta adinekoak zaintzeko, eta baita garbiketa lanak egiteko ere. ☎ **608 523 426**

- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko, esperientzia handia daukat. ☎ **677 259 560**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko, eta garbiketa lanak egiteko. Orduka. ☎ **688 901 667 / 943 530 908**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko, eta garbiketa lanak egiteko. ☎ **631 932 184**
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Esperientzia daukat. ☎ **606 354 982**
- Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak egiteko edo pertsona nagusiak zaintzeko. ☎ **602 490 595**
- Emakumea eskaintzen da interna moduan lan egiteko, umeak edo adinekoak zaintzen. Orduka lan egiteko ere prest. ☎ **631 746 668**
- Emakumea edozein lan egiteko prest. ☎ **638 338 816**
- Emakumea eskaintzen da interna moduan lan egiteko. ☎ **639 523 390**
- Emakumea lan bila. Adinekoak edo umeak zaintzen egingo nuke lan. Gauez edo orduka lan egiteko prest. ☎ **631 417 995**
- Neska eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. Geriatria laguntzaile ikasketak ditu. ☎ **646 931 162**

**ESKAITZA**

- Neska euskalduna behar da umeak zaintzeko. ☎ **649 580 505 (Leire)**
- EGA azterketa prestatzeko klase partikularrak hartuko nituzke. ☎ **617 053 329**

**ETXEBIZITZAK**

- Etxebizitza txiki bat hartuko nuke alokairuan. Hilean 300 bat euro ordainduko nituzke. ☎ **631 275 541**
- Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **608 523 426**
- Etxea alokairuan hartuko nuke Elgoibarren. ☎ **677 259 560**

**BESTELAKOAK**

- Lepokoa galdu nuen pasa den asteburuan Elgoibarren. Bihotz forma du, erdia zilar kolorekoa da eta beste erdia urre kolorekoa. Balio sentimental handia du. Konpentsazioa izango du lepokoa bueltatzeak. ☎ **616 816 826**
- Kyocera FS-C5100DN inpresorarentzako toner magenta eta horia salgai. Berriak, erabili gabeak. Bakoitzak 50 euro. ☎ **943 744 112**
- Canon laser inpresorarentzako EP-22 tonerra salgai 50 euroan. Berria, erabili gabe. Inpresora hauentzat balio du: LBP-250 / 350 / 800 / 810 / 1110 / 1110SE / 1120. ☎ **943 743 704**
- Kartera bat aurkitu genuen abenduaren 24an, Kalegoen plazan. Elgoibarko Izarran dago. ☎ **943 741 626**

**OSPAKIZUNAK**

- 1970ean jaiotako bazkaria, martxoaren 14an, Sigma jatetxean. 55 euro sartu behar dira, kontu zenbaki honetan. Bankoa: 0138 0020 1100 10693802. ☎ **607 477 405 / 663 694 896**



**P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar**  
☎ **943 743 140 - rosapf@telefonica.net**



**Nire emazteak etxe bat erosi zuen, bere ahizpa eta amarekin batera. Ama alarguna du, eta etxearen eskritura hiruren izenean dago egina. Amak ez du testamenturik eginda momentuz eta jakin nahi nuke hiltzen den egunean etxe hori saltzeko aukera izango ote genukeen.**

Lehenengo eta behin, jakin beharko nuke zure amaginarreba foru lurralde eskubideren bati lotua dagoen. Hala ez bada, eskubide komuna legokio, eta kasu horretan, testamenturik egiten ez bada, amaren zati hori bere bi alaben artean erdibana banatu beharko litzateke, beti ere beste seme-alabarik ez baldin badago edo aurrez hildako seme-alabaren baten ondorengorik ez badago.

Behin hilda gero, herentzian interesatua dagoen edonork jaraunsle-deklarazioaren akta eskatu beharko du, beharrezkoa baita herentzia eskatzeko eta dagokiona jasotzeko.

**AHOLKUA: Etxea arazorik gabe saldu ahalko litzatekeen arren, kontuan izan behar da jaraunsle-deklarazioa egitea testamentua egitea baino askoz garestiagoa dela. Gainera, jaraunsle-deklarazioa esku-ratzeko tramitea testamentua egitekoa baino luzeagoa da, eta beraz, asko luzatu litzateke kontua. Horregatik hobe da emakume horri bizi den artean bere alaben aldeko testamentua egiteko eskatzea.**

**ROSA M<sup>a</sup> PINTADO:** Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749








• Zorionak, **Julen Blanco Gantegi**, gure txapeladuna, hilaren 19xan 5 urte bete zenduazan eta. Muxu haundi bat, etxekuen partez.



• Zorionak, **Elene!** Muxu asko aitatxo, ama-txo eta Noraren partez.



• Zorionak, **Estanis!** 6 urte, danborrerol! Muxu handi bat etxekoen eta bereziki Danelen partez.



• Zorionak, **Lander**, asigandean 5 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat, eta ondo pasa. Etxekoen partez.



• Zorionak, **Markel**, asteazkenean zure urtebetetzea izan zelako. Txokolate goxo-goxoa jan genuen. Sare eta etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Onar**, zure laugarren urtebetetzean. Familiako eta bereziki Iruneren partez.



• Zorionak, **Unai**, 4 urte handi bete dituzulako! Lau muxu handi zuretzat, familiako partez.



• Zorionak, **Martin**, urtetxo bat bete duzulako. Patxo handi bat familiako partez.

## Zoriondu ezazu **BARREN**en!

### PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: **4'50€**

Argazki bikoitza: **7€**

Hirukoitza: **9€**

Hiru lagunetik gorako taldeak: **15€**

### ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: **3'50€**

Argazki bikoitza: **6€**

Hirukoitza: **8€**

Hiru lagunetik gorako taldeak: **12€**


Argazkiak eguazten eguerdia (12:00etarako)

baino lehen ekarri behar dira

BARRENeko bulegora,

edo [barren@elgoibarkoizarra.com](mailto:barren@elgoibarkoizarra.com)


e-postara bidali.



Urtarrilaren 30ean binakako futbolin txapelketa LH3-6ko haurrentzat. Izenemateak urtarrilaren 28ra arte ludotekan. Bazkideek doan, eta bazkide ez direnek euro bat bikoteko.

Urtarrilaren 31tik eta otsailaren 1era ping-pong txapelketa gaztelekuan! Prezioa 3€.

Izenemate epea urtarrilaren 28an bukatuko da.



# BARREN astekarirako KOMERTZIALA BEHAR DA

## ESKAITZEN DA

- Ordezkapen bat egiteko lan kontratua.

## ESKATZEN DA

- Euskara maila ona: ahoz eta idatziz.
- Lan taldean lan egiteko gaitasuna.
- Salmentarako eta jendaurrean lan egiteko doaiak.

## BALORATUKO DA

- Elgoibar edo ingurukoa izatea.
- Marketing ikasketak izatea.
- Autoa izatea eta ordutegi malgua.

Interesatuak bidali curriculumak otsailaren 6rako, [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)  
Informazio gehiagorako: ( 943 744 112, Ainhoa)

## 23 barixakua

### Musika

20:30 Manolo Escobarren musikala

Mi carro lo tienes tú musikala, Herriko Antzokian.

## 24 zapatua

### Informazio saioa

11:00 Ingeniaritza duala

Ingeniaritza dualari buruzko informazio saioa eskainiko dute IMHn.

### Libre Eguna

12:30 Txorizo banaketa

13:00 Argazki erraldoia

Jarraian, triki poteoa

14:30, Bertso bazkaria, Unai

Gaztelumendi eta Nerea Ibarzabal bertsolariekin.

Lekuederren.

Jarraian, sorpresa

23:00 Kontzertuak,

Gaztetxean Xero Xiette eta Skaleak taldeekin.

### Kirola

19:30 Mugertza krosa

Krosean parte hartuko duten korrikalarietara harrera egingo diete, udaletxean.

## 25 domeka

### Kirola

10:00 Mugertza krosa

Atletismo lasterketak, Mintxetan.

## 26 astelehena

### Artea

17:00 Arte tailerra

Pentsamendu arrazionala landuko dute, Carmen Agirrerekin. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

## 27 martitzena

### Literatura

18:00 Literatura tailerra

Maria Antonieta liburuaren bigarren atala landuko dute, Consuelo Carrererekin. Udal Liburutegian.

### Dolitika

19:00 Biler irekia

EHBildu Elgoibarrek deituta, Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

## 28 eguaztena

### Hitzaldia

18:00 Ikasketa zailtasunak

Mendaroko udaletxean.

## BOTIKA ORDUTEGIAK:

09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

## GUARDIAK

09:00 - 22:00	22:00 - 24:00	24:00 - 09:00
23 Ibañez 24 Garitaonandia 25 Garitaonandia 26 Etxeberria 27 Fernandez 28 Yudego 29 Oruesagasti 30 Barrenetxea	Astelehenetik igandera  Garitaonandia	Elorza (Eibar) Juan gisasola, 18 (943 206 100)

\* Larrialdietarako Eibarko anbulategira jo behar da.

Fernandez Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)  
Tel: 943 756 142

Ibañez Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638

Oruesagasti Kalebarren, 9 (Soraluze) - Tel: 943 751 384

## ZINEA (HERRIKO ANTZOKIAN)

«El Hobbit, la batalla de los cinco ejércitos»

23, barixakua: 22:15

24, zapatua: 19:00 / 22:15 (VOS)

25, domeka: 19:00

26, astelehena: 21:30

«La sal de la tierra»  
(Ongarri zinekluba)

29, eguena: 21:30

## IKASTOLAN, DENOK GARA GU

HHO (2014an eta 2015ean jaiotakoak)  
otsailtik ekainera hasteko matrikula zabalik  
urtarrilaren 19tik 30era



elgoibar ikastola



www.elgoibarkoikastola.es  
943 744447



Elgoibarren eta Soraluzen ikastola



Ikastola



# Elgoibarko Izarraren Santa Ageda koruetan parte hartu nahi?

Otsailaren 4an izango da zita, Santa Ageda bezperan.



*Baserriz baserri, kantuan eta eskean*

- Arratsaldeko 14:30ean elkartuko gara Kalegoen plazan.
- Bi taldetan banatu ondoren, Elgoibarko baserri-auzoetara abiatuko gara koplak kantari.
- Gaueko 21:30ak aldera arte jardungo dugu kantuan eta eskean. Egunari amaiera emateko, Aiastiako soziedadean afalduko dugu.

Parte hartu nahi duzuenok URTARRILAREN 30a baino lehen eman behar duzue izena Elgoibarko Izarran (943 741 626 / [elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus](mailto:elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus))

***Animatu, denontzako tokia dago-eta!***

Antolatzailea:



Laguntzaileak:





# 2015-2016

**DBHko aurrematrikula**  
epea zabalik  
otsailaren 2tik 13ra.

**Gurasoentzako**  
bilera irekia  
**ARREITURREKO**  
liburutegian  
otsailaren 28an,  
arratsaldeko 18:00etan.  
**ZATOZI**



**Elgoibarko HERRI Eskola**  
Kaleburua, 8  
Tel.: 943 74 08 79  
E-posta: 012777a@vezkuntza.net



**EUSKO JAURLARITZA**  
HEZKUNTZA  
UNIBERTSITATE eta  
IKERKETEA SAILA



**Elgoibar Arreiture BHI**  
San Roke, 11  
Tel.: 943 748 397  
E-posta: [www.elgoibarbhi.net](http://www.elgoibarbhi.net)